



OÑATIKO UDALA

Telefonoa: 78 04 11

Fax: 78 30 69

20560 OÑATI

Oñatiko **“ERREKALDE AUZOKO IRISGARRITASUN OBRAK – 2. AREA”**  
proiektuko lanak prozedura irekiaren bidez esleitzeko enkantearen baldintza  
ekonomiko-administratiboen agiria ..... **2. Orr.**

Pliego de condiciones economico-administrativas que regula la subasta por  
procedimiento abierto de los trabajos del proyecto de **“OBRAS DE  
ACCESIBILIDAD EN EL BARRIO DE ERREKALDE. AREA 2”** ..... **Pág. 15**

**OÑATI KO “ERREKALDE AUZOKO IRISGARRITASUN OBRAK – 2. AREA” PROIEKTUKO LANAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ESLEITZEKO ENKANTEAREN BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN AGIRIA.**

1.- Kontratuaren xedea.

Kontratuak honako lanak egikaritzea du xede: **“ERREKALDE AUZOKO IRISGARRITASUN OBRAK – 2. AREA”**.

CNAE: F 45.21 Sekzioa  
CPV: 4521000

2.- Kontratuaren bidez bete beharreko administrazio-premiak.

Klausula administratibo partikularren agiri honek xede duen kontratuaren egikaritzaren bidez, ondorengo premia hau beteko da: Errekalde Auzoko hiri-mugikortasun iraunkorra lortzea (oinbideratzea, bidegorria, trafikoa moteltzea, eta abar; baita argikuntza publikoaren eraginkortasun energetikoa ere.

3.- Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua:

- a) Lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren zenbatekoa honako hau da: zortzihun eta hogeita mila, berrehun eta berrogeita hamabi euro eta hirurogeita hiru zentimo (820.252,63 euro).
- b) Kopuru horretatik, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokion zenbatekoa ondorengo hau da: ehun eta hogeita bost mila, ehun eta hogeita hiru euro eta hogeita zortzi zentimo. (125.123,28 euro).

4.- Urteko kuotak.

Aurrekontuari dagokion zenbatekoa urteko kuota bakar batean ordainduko da: 2011. urtekoan.

5.- Aurrekontu-aplikazioa.

2011ko udal aurrekontuen kontura finantzatuko da proiektua. (1652 diru-atala)

6.- Kontratuaren erregimen juridikoa eta kontratu-izaera duten dokumentuak.

Toki Korporazioen kontratuen inguruan oro har ezarritakoaz gain, kontratua arautuko duten erregelamenduak honako hauek dira:

- 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren kontratuei buruzkoa.
- 817/2009 Errege-Dekretua, maiatzaren 8koa, zeinaren bidez garatzen den zati batean 30/2007 Legea.
- Herri Administrazioen Kontratu Legearen Araudi Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 errege Dekretuak onartutakoa, 30/2007 Legearen aurka ez doan heinean.

Agiri honez gain, ondorengo dokumentu hauek ere kontratu-izaera izango dute:

- Baldintza teknikoen agiriak.
- Planoek.
- Proiektuaren memoriak, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Araudi Orokorraren 128. artikuluan zehaztutako edukietan.
- Kontratazio-organoak onartutako lan-programak.
- Prezio-koadroek.
- Kontratua formalizatzeko dokumentuak.

#### 7.- Egikaritze-epea.

Kontratua egikaritzeko epea zazpi hilabetekoa izango da, zuinetaren egiaztapen-datatik kontatzen hasita, eta 2011ko azaroaren 30aren aurretik amaituko da.

#### 8.- Esleipen-prozedura.

Kontratua esleitzeko prozedura irekia eta premiazko izapidetzea aplikatuko dira, Legearen 96. eta 127 artikuluek (epeak murrizteko xedez) jasotakoaren arabera.

#### 9.- Kontratuaren lizitazioaren publizitate-gastuak direla-eta esleipendunak ordaindu beharreko gehieneko zenbatekoa.

Esleipendunak publizitate-gastuak ordaindu behar ditu.

#### 10.- Kontratuari uko egin edo atzera eginez gero ordaindu beharreko gastuak.

Kontratuari uko egin edo atzera eginez gero, lizitatzailer bakoitzari ez zaio ezer ordainduko egindako gastuengatik.

#### 11.- Saillapen eskagarria.

Lizitatzailerak honako talde, azpitalde eta kategoria hauetan sailkatuta daudela egiaztatu behar dute:

Taldea: C. Azpitaldea: 1,2,4,5,6. Kategoria: D edo handiagoa.

#### 12.- Berme galdagarriak.

- Behin-behinekoa: lizitatzailerak 20.855,00 euroko behin-behineko bermea aurkeztu beharko dute (lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren % 3ko (Balio Erantsiaren gaineko Zergarik gabe).
- Behin betikoa: Kontratuaren behin-behineko esleipendun gertatzen den lizitatzailerak kontratuaren esleipen-zenbatekoaren % 5eko bermea aurkeztu behar du. (BEZ gabe).

#### 13.- Proposamenak aurkeztea.

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak gutun-azal itxietan eta behar bezala identifikatuta aurkeztuko dira. Kanpoaldean, parte hartu nahi den lizitazioa, lizitatzaileraren edo haren izenean diharduenaren sinadura eta izen-abizenak edo enpresaren izena adierazi behar

dira. Gutun-azalaren barruan, beste orri batean, gutun-azalaren edukia adierazi behar da, zenbakiz zerrendatuta.

Kontratuaren iragarkian adierazitako kontratazio-organoaren egoitzan edo bulegoan aurkeztuko dira gutun-azalak. Proposamena aurkezten duenari, egiaztagiri gisa, lizitatzaillearen izena, kontratuaren xedearen izendapena eta proposamena aurkeztu den eguna eta ordua idatzita dauzkan jasotze-agiria emango diote.

Proposamenak ohiko postaz ere aurkeztu ahal izango dira. Horrelakoetan, enpresaburuak bidalketa egin dueneko data egiaztatuko du postetxean. Era berean, kontratazio-organismoari eskaintza bidali duela jakinaraziko dio egun berean, telex, fax edo telegrama bidez.

Bi baldintza horiek bete ezean, kontratazio-organoak ez du dokumentazioa onartuko, baldin eta iragarkian azaldutako epea amaitzeko eguna eta ordua igaro eta gero jasotzen badu.

Nolanahi ere, epea amaitzeko adierazitako egunetik hamar egun igarotakoan dokumentazioa jaso ezean, ez da inolaz ere onartuko.

#### 14.- Proposamenak aurkezteko era.

Proposamenak ondoz ondo zenbakitutako bi gutun-azaletan aurkeztuko dira:

**A. 1. GUTUN-AZALA.** Urriaren 30eko 30/2008 Legearen 130. artikulua araberako legedian aurreikusitako egiazkotasun-eskakizunak betetzen dituzten dokumentu hauek edukiko ditu:

- 1) **Izaera juridikoa egiaztatzeko dokumentuak:** banakako enpresaburuek, NANaren egiazko kopia; pertsona juridiko diren enpresaburuek, berriz, erakundearen eraketa adierazten duten eskritura edo dokumentu juridikoak eta arautzen duten estatutuak, dagokion Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta.

Europako Batasuneko estatuetako herritarrak diren enpresaburu ez-espainiarrek, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, ezarrita dauden estatuko legediaren araberrako erregistroan inskribatuta daudela frogatzeko ziurtagiria aurkeztu behar dute, edo bestela, zinpeko aitortpena edo egiaztageria, indarrean dauden Europako Batasuneko xedapenen araberrako ezarritako terminoetan.

Gainerako enpresaburu atzerritarrek, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, Espainiak dagokion estatuan duen diplomaziako misioaren txostena edo enpresak egoitza soziala duen lurraldeko kontsuletxearena aurkeztu behar dute.

- 2) **Ordezkarrien egiaztageriak.** Proposamena sinatzen dutenak lizitatzailleak berak ez badira, lizitatzailleek proposamena sinatzen dutenei emandako ahalordea erantsi beharko da dokumentazioan, ahaldu(n)en Nortasun Agiri Nazionalarekin egiazko kopiarekin batera.
- 3) **Aldi Baterako Enpresa Elkarte (ABEE) eratzeko konpromiso-dokumentua.** Zenbait enpresaburu aldi baterako elkarte batean bildurik azaltzen direnean, dokumentu bat aurkeztuko dute (pribatua izan daiteke), esleipendunak izanez gero elkarte osatzeko konpromisoa hartuta.

Dokumentua enpresa bakoitzaren ordezkariak sinatuta egongo da eta, horrez gain, kontratuarekin zerikusia duten eragin guztietarako, Administrazioaren aurrean ABEEaren ordezkari izango dena izendatuko dute. Halaber, enpresa bakoitzak ABEEan duen partaidetza ere ezagutarazi behar dute.

- 4) **Sailkapena egiaztatzeko dokumentuak.** Kontratatzen sailkapena galdagarria den kasuetan, enpresa lizitatzaila agiri honetan eskatutako terminoetan sailkatuta dagoela egiaztatzeko ziurtagiria ere aurkeztu behar da.

Sailkapena jasotzeko zain dauden enpresek sailkapena jasotzeko eskabidea aurkeztu izanaren egiaztagiria aurkeztu behar dute. Ondoren, dokumentazioaren akatsak eta hutsuneak zuzentzeko aurreikusitako epean, dagokion sailkapenaren egiaztagiria aurkeztuko dute.

Sailkapena izan ezean edo nahikoa izan ezean, ezinezkoa izango da horren ordezkari adierazteko beste biderik erabiltzea.

Europako Batasuneko enpresa ez-espainiarrek, sailkapena egiaztatzeko, Europako Batasuneko estatu kideetan kontratuak egiteko ezarritako enpresaburu baimenduen zerrenda ofizialetan izena emanda daudela egiaztatzeko sailkapen-ziurtagiriak edo antzeko dokumentuak aurkez ditzakete, edo bestela, enpresak egoitza duen estatu kideko legediaren arabera europar egiaztatze-arauak betetzen dituzten organismoek egindako ziurtagiria. Dokumentu horietan, enpresaburuari bere izena zerrendan sartzeko aukera eman dioten erreferentziak edo sailkapen-jaulkipena adierazi behar dira, baita lortutako sailkapena ere.

- 5) **Behin-behineko bermea osatzeko dokumentua** edo osatu izanaren egiaztagiria, berme hori eskatuz gero.
- 6) **Kontratatzea debekatuta ez daukalako egiaztagiria.** Horrekin batera, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituelako adierazpena ere aurkeztuko du enpresaburuak, indarrean dagoen legediak hala aginduta. Hala ere, eskakizun hori betetzen duelako egiaztagiria behin betiko esleipenaren aurretik ere aurkeztu beharko du esleipendun enpresaburuak.
- 7) **Atzerritar enpresa orori eskatzen zaion dokumentazio osagarria.** Atzerriko enpresek, kontratua Espainian egikaritu behar izanez gero, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioari men egiteko adierazpena aurkeztu behar dute, kontratuak zuzenean edo zeharka eragin litzakeen gorabehera guztiei begira, eta hala dagokionean, lizitatzailari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko eginez.
- 8) **Egoitza.** Lizitatzaila guztiek egoitza bat adierazi behar dute, jakinarazpenak bertara bidaltzeko. Datu hori osatzeko posta elektronikoko helbide bat eta telefono eta fax zenbakiak ere aurkez daitezke.

**B) 2. GUTUN-AZALA.** Kontratua egikaritzeko prezioa adierazten duen eskaintza ekonomikoa jasoko du. Balio Erantsiaren gaineko Zerga aparteko partidan adieraziko du. Eskaintza ekonomikoa aurkezteko I. eranskinean ageri den ereduari jarraitu behar zaio.

Gutun-azal horretan bertan sartuko dira prezioari dagokionez balorazio-irizpide ezberdinei buruzko dokumentuak, formula bat aplikatuz baloratu beharrekoak.

Bereziki sartu beharko dira legez langabezian dauden pertsonak hartzeko kontratazio berriak.

15.- Proposamenak eta gainerako eskakizunak aurkezteko epea.

Kontratazio honi dagokion espedientea eta berari atxikitako dokumentazio teknikoa, Oñatiko Udalaren Idazkaritzam aztertu ahal izango dira 9:00etatik 14:00etara egunero, egun baliodunetan, lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta proposamenak aurkezteko epea igaro arte.

Proposamenak, adierazitako toki eta ordutegian aurkeztu beharko dira, 15 egutegi-eguneko epearen barruan, aipatu iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

Lizitazio hau , era berean, kontratazio-organoaren kontratatzaile-ezaugarrietan iragarriko da, eta sarbidea honako web orritik egin ahal izango da: [www.oinati.net](http://www.oinati.net).

Interesatuak proposamenek baldintza administratibo partikularren agirian jasotakoa bete behar dute, eta proposamena aurkezteak esan nahi du enpresaburuak baldintza horien guztien edukia, proiektuarena eta baldintza teknikoaren agiriarena erabat onartzen dituela, salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Proposamenak isilpean gordeko dira eta hala izateko beharrezko baliabideak ezarriko dira, harik eta proposamenok jendaurrean irekitzeko unea iritsi arte.

Lizitatuak, gehienez, proposamen bat aurkeztu ahal izango du, halako aukera dagoenean aldaerak edo hobekuntzak onar badaitezke ere.

Era berean, lizitatuak ezin du proposamenik aurkeztu beste batzuekin osatutako aldi baterako elkarteetan, baldin eta bere kabuz beste proposamen bat aurkeztu badu, eta ezin du aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan parte hartu. Arau horiek hautsiz gero, berak aurkeztutako proposamenetatik bat bera ere ez da onartuko.

16.- Kontratua esleitzeko irizpideak.

Kontratuaren esleipena ondorengo irizpideak baloratuta egingo da:

- 1.- Prezioa: proposamenik merkeenari hirurogeita hamar (70) puntu emango zaizkio, salbu eta balio ez-normalak edo neurrigabekoak baditu 18. baldintzari jarraiki.

Proposamen ez-normalak edo neurrigabekoak agertzen badira, entzunaldia emango zaie aurkeztu dituzten lizitatuak, Sektore Publikoaren kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeko 136 artikulua arabera.

Prozedura horrekin proposamenik merkeena finkatuta, hortik gora portzentaia-puntu bakoitzeko (1), puntu bat (1) edo zati proportzionala deskontatuko da.

- 2.- Lanesku kontratatu berria: langabezian egonda kontratatzen den langile bakoitzeko sei (6) puntu gehituko dira, gehien jota hogeita hamar (30) puntu.

17.- Aldaketak.

Lizitatuzaileek ezin dute proiektuaren aldaketarik edo hobekuntzarik proposatu.

18.- Eskaintzak balio ez-normalak edo neurritz gaineakoak dituela ondorioztatzeko irizpideak .

Proposatutako prezioa gainerako prezioen batez bestekoa baino % 10 merkeagoa izanez gero, eskaintza horrek balio ez-normalak edo neurritz kanpokoak dituela ondorioztatuko da.

19.- Konfidentzialtasuna.

Esleipenaren publizitateari buruzko eta hautagai eta lizitatuzaileei eman beharreko informazioari buruzko urriaren 30eko 20/2007 Legearen xedapenak alde batera utzi gabe, lizitatuzaileek eskaintzak aurkezterakoan emandako informazioaren zati bat konfidentzialtzat eman dezakete, batez ere sekretu tekniko edo komertzialei dagozkienak eta eskaintza horien ezkutuko alderdiak. Kontratazio-organoek ezin izango dute informazio hori hedatu, haien baimenik gabe.

Era berean, kontratistak informazioaren konfidentzialtasuna errespetatuko du, kontratua egikaritzean agirien bidez edo kontratuaren beraren bidez jasotako informazioari halako izaera ematen zaio, edo informazioaren nolakotasuna dela-eta berez halako izaera badu. Betekizun horrek bost urteko epean iraungo du informazioa ezagutzen denetik hasita, salbu eta agiriak edo kontratuak iraupen luzeagoa agintzen badute.

20.- Prezioen berrikuspena:

Legearen 77.1 artikulua xedatutakoaren arabera, 7. baldintzari dagokionez, ez da prezioen berrikuspenik izango.

21.- Dokumentazioa eta proposamenak irekitzea.

- a) Dokumentuak kalifikatzeko eta eskaintzak aztertu eta balioesteko, kontratazio-mahaia osatzen duten pertsonak izendatuko dira, Sektore Publikoaren Kontratu Legearen bigarren xedapen gehigarriaren 10. atalak eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21. artikulua agindutakoa betez.

Bestalde, Sektore Publikoaren Kontratu Legearen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 130.1 artikulua jasotakoarekin bat, aurkeztutako dokumentazioa sailkatzeko arduraduna berariaz osatutako kontratazio-mahaia izango da. Mahaiko lehendakariak informazioa jasotzen duten gutun-azalak irekitzeko aginduko du, eta idazkariak gutun-azal bakoitzean dauden dokumentuen zerrenda egiaztatuko du.

- b) Kontratazio-mahaiak 1. gutun-azaleko dokumentazioan akats edo gabezia konpongarriak aurkitzen baditu, ahoz jakinaraziko die interesatuei, nahiz eta akats edo gabezia horiek kontratazio-organoen iragarkien bidez ere jendaurrean jarri. Lizitatuzaileei hiru egun balioduneko epea emango zaie kontratazio-mahaiaren beraren aurrean akats edo gabeziak zuzentzeko edo konpontzeko.

Horrelakoetan, egindakoa jasota geratuko da nahitaez egin beharreko aktan.

- c) Behin dokumentazioa kalifikatuta eta, hala dagokionean, akats eta gabeziak zuzenduta, kontratazio-mahaiak onartutzat emango ditu Legearen 130. artikuluan jasotako aurretiazko eskakizunak betetzen dituzten lizitatuzaileak. Ondoren, hala badagokio, kaudimena aztertu eta balioetsiko dute, Administrazio Publikoen Kontratu

Legearen Araudi Orokorraren 82. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki. Lizitaziotik baztertutakoak eta baztertzeko arrazoiak espresuki adieraziko ditu mahaiak.

- d) Jarduera horiek amaitutakoan, proposamenak irekitzeko jendaurreko ekitaldia aurrez finkaturiko lekuan eta egunean burutuko da. Proposamenak irekitzeko prozedurak Administrazio Publikoen Kontratu Legearen Araudi Orokorraren 83 artikuluan agindutakoa beteko du.

Gainontzekoari dagokionez, egintza hau, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 26. eta 27. artikuluetan aurreikusitako formalitateak betez burutuko da, eta horietan aurrakusten ez direnetan, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Araudi Orokorraren 83. artikulua xedatutakoaren arabera.

Agirian, edo aurreko egintzan finkatutako egun eta orduan, formulak aplikatuz haztatu behar diren balorazio-irizpideei buruzko dokumentazioa irekiko da, balio-judizioen arabera haztatu behar diren elementuei emango zaien balorazioa irakurtzearekin hasita. Ondoren gutun-azalak edo fitxategi elektronikoak irekiko dira horien edukiaren berri emanez.

- e) Balorazioan kontuan hartu beharko da maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 30. artikulua xedatutakoa.

## 22.- Esleipena.

Esleipena, Kontratazio-organoak erabakiko du ebazpen ziodunaren bidez eta, ondoren, argitara emango du Sektore Publikoaren Kontratu Legearen 135.4 artikulua arabera.

Nolanahi ere, kontratuen behin-behineko esleipena 15 egun naturaleko epean gauzatu behar da, proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita.

Kontratazio-organoak, eskaintza onena egin duen lizitatuari eskatuko dio, jakinarazpena jaso eta 10 egun balioduneko epean honako agiriak aurkezteko:

- Kontratuak egiteko debekuean ez dagoelako adierazpen arduratsua. Horrekin batera, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituelako egiaztagiria ere aurkeztu behar du.
- Behin betiko bermearen ordainagiria eta, hala badagokio, eskatutako berme osagarriarena. Berme horiek osatu izana bide elektronikoz edo informatikoz egiaztatu behar dira, bide horiek onartzen badira.
- Halaber, Legearen 53.2 artikulua arabera, esleipendunari kontratua egikaritzeko baliabide materialak eta pertsonalak dituela egiaztatzen dokumentazioa eskatzen zaionean, aipatutako bide horiek erabiliz egiaztatu ahal izango du esleipendunak betekizun hori.

Kontratazio-organoak dokumentazio jaso ondorengo 5 egun baliodunen barruan esleituko dio kontratua; jakinarazpena zioduna izango da eta lizitatu guztiei jakinaraziko zaie, era beran kontratatzailearen ezaugarrietan argitaratuz.

Lizitatuak Aldi Baterako Enpresa Elkartean aurkezten direnean, obra-kontratu formalizatu aurretik ABEEa osatzeko eskritura aurkeztu behar dute.

Orobat, esleipendunari aseguru mota bat kontratatzeke eskatzen zaionean, obra-kontratua formalizatu aurretik dagokion poliza aurkeztu behar du.

Obra-kontratua formalizatu aurretik, esleipendunak langile berriekin sinaturiko lan-kontratuen kopiak aurkeztu behar ditu, lan-kontratu horiek obra-kontratuak xede duen obrari lotuta daudela egiaztatzeke.

#### 23.- Kontratu-arduraduna, obra-zuzendaria eta obra-ordezkaria.

Kontratazio-mahaiak kontratuaren arduraduna izendatu ahal izango du, Sektore Publikoaren Kontratu Legearen 41. artikulua xedatutakoa betez.

Bestalde, kontratazio-organoak obra-zuzendaria ere izendatuko du. Obra-zuzendariak bere gain hartuko dituen eginkizunak kontratatutako obra behar bezala egikaritzeko beharrezko zuzendaritza, egiaztapena eta ikuskapena izango dira. Obra-zuzendariari laguntzeko pertsona ere izendatu ahal izango du kontratazio-organoak.

Azkenik, kontratistaren obra-ordezkariek tituludun teknikaria izan eta kontratak xede dituen obren antzekoetan esperientzia egiaztatua eduki behar du.

#### 24.- Zuinketa-egiaztapena eta lan-programa.

Kontratua formalizatzen denetik, gehienez, hamabost egun naturaleko epean, zuinketa eta dagokion akta egin beharko dira.

Esleipendunak lan-programa bat aurkeztu behar du, kontratazio-organoak onar dezan. Programa hori aurkezteko epea hamabost egun naturaletik beherakoa izango da, kontratua formalizatzen denetik. Lizitatuak bere proposamena garatuko du horretan, kontratuko baldintza bat ere aldatu gabe. Kontratazio-organoak, programa ikusi ondoren, haren aplikazioa erabaki eta kontratuari erantsiko dio.

#### 25.- Laneko segurtasun- eta osasun-plana

Behin betiko esleipena jakinarazten denetik hamabost egun naturaleko epean, kontratistak laneko segurtasun- eta osasun-plana aurkeztuko dio kontratazio-organoari, eta horrek bost egun naturaleko epea izango du plana onartzeko, egoki iritziz gero.

Nolanahi ere, laneko segurtasun- eta osasun-plana onartzeko gehienezko epea hilabetekoa izango da, kontratua sinatzen denetik kontatzen hasita. Kontratistak aurreko paragrafoan adierazitako epeak hautsi dituela-eta obrak hasteko baimena jaso bezain laster hastea ezinezkoa balitz, kontratistak ezin izango du epea luzatzeko eskatu arrazoi horrengatik.

#### 26.- Epeak.

Kontratua egikaritzeko finkaturiko epe osoa betetzera behartuta dago esleipenduna, baita, hala dagokionean, finkaturiko epe partzialak betetzera ere. Epe horiek zuinketaren egiaztapen-akta sinatu ondorengo egunean hasiko dira kontatzen esleipendunarentzat.

#### 27.- Ordainketa-erregimena.

Egindako lanen hileko zertifikazioen bidez egingo dira ordainketak, Sektore Publikoaren Kontratu legearen 200. eta 215. artikuluetan eta Administrazio Publikoaren Kontratu legearen Araudi Orokorren 147. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Azpikontrataturako enpresei Kontratatistak esleitu dien lana erabakitako prezioa ordaindu beharko die hogeita hamar egun naturaleko epean, azpikontratistak edo hornitzaileak egindako faktura kontratista nagusiak onartzen duen egunetik kontatzen hasita.

Kontratistak aurreikusi baino azkarrago egin ahal izango ditu lanak, obrak kontratu-epareen barruan egikaritzeko, salbu eta obra-zuzendariak prozedura hori desegokitzen jotzen badu. Hala ere, ez du eskubiderik izango urte bakoitzean dagokiona baino zenbateko handiagoa jasotzeko, egikaritutako obren edo egindako zertifikazioen zenbatekoa edozein dela ere. Horrela egindako zertifikazioek berandutzako interesak sorraraziko dituzte Administrazio Publikoen Kontratu Legearen Araudi Orokorraren 152. artikuluan adierazitako datatik aurrera soilik.

Kontratistak kontratuko abonua jasotzeko eskubidea ere izango du, Sektore Publikoaren Kontratu Legearen 2003. artikuluan eta Araudi Orokorraren 155. eta 156. artikuluetan finkaturako terminoetan. Nolanahi ere, bermea osatzeko eskatuko zaio, abal bidez edo Legeak aurreikusitako beste era batera.

#### 28.- Egikaritze-baldintza bereziak.

Agiri honek xede duen kontratua betetzeko ezinbesteko baldintza da kontratatistak obra egikaritzeko kontratatzen dituen langile berriak langabezia egotea. Xede horretarako, Enplegu-Zerbitzu Publikoetan, okupatu gabeko enplegu-eskatzailerik gisa erregistraturako langabetei egindako edo egin beharreko kontratuak zenbatuko dira soilik. Era berean kontuan hartuko dira, jarduera utzita, Enplegu-Zerbitzu Publikoetan okupatu gabeko enplegu-eskatzailerik gisa erregistraturako langile autonomoak.

Zentsu honetan Kontratistak obraren zertifikazioarekin batera langabezia zeuden eta lan honetarako kontratatu dituen langileen TC2-k aurkeztu beharko ditu.

#### 29.- Zehapenak.

Kontratistari zehapenak ezarriko zaizkio ondoren adieraziko diren arrazoi hauengatik:

- a) **Egikaritze-baldintza bereziak ez betetzeagatik.** Agiri honetan finkaturiko egikaritze-baldintzak hautsiz gero, ondorengo zehapen hauek ezarriko zaizkio kontratatistari:
- Arau orokor gisa, kontratuaren esleipen-zenbatekoaren % 1ekoa izango da zehapenaren zenbatekoa, salbu eta, kontratazio-organoaren iritziz eta behar bezala argudiatuz, arau-haustea larria edo oso larria bada, kasu horietan % 5ekoa edo legeak gehienez aurreikusitako % 10ekoa ere izan litezke zehapenak, hurrenez hurren. Araua behin baino gehiagotan haustea ere kontuan har liteke larritasuna zehazteko.
  - Kontratistari ordainketa osoa edo partziala egiteko eman beharreko diru-kopuruari kenduko zaio zehapenaren zenbatekoa, edo bestela osatutako bermeari, Sektore Publikoaren Kontratu Legearen 196.8 artikuluan arabera.

Kontratazio-organoak edonoiz egiaztatu ahal izango du esleipendunak kontratua egikaritzen ari den bitartean egikaritze-baldintza bereziak betetzen dituela. Nolanahi ere, obrak hartzen dituen unean egiaztatuko du betetze hori.

Arau-haustea langileak aurreko atalean azaldutako baldintzetan kontratatutako beharri badagokio, oso arau-hauste larritzat hartuko da, Sektore Publikoaren

Kontratu Legearen 102.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, baldin eta esleipendunak kontrataturiko langile berrien % 50 baino gehiago langabezian ez badago.

b) **Baldintzak akatsekin betetzeagatik.** Baldintzak akatsekin betetzeagatik zehapenak ezarriko zaizkio kontratistari, ondorengo kasu hauetan:

- Obrak hartu behar direnean hartzeko moduan ez badaude, kontratistari egotz lekizkiokeen arrazoiengatik.
- Arau orokor gisa, kontratuaren aurrekontuaren % 1ekoa izango da zehapenaren zenbatekoa, salbu eta, kontratazio-organoaren iritziz eta behar bezala argudiatuz, arau-haustea larria edo oso larria bada, kasu horietan % 5ekoa edo legeak gehienez aurreikusitako % 10ekoa ere izan litezke zehapenak, hurrenez hurren. Araua behin baino gehiagotan haustea ere kontuan har liteke larritasuna zehazteko.
- Nolanahi ere, zehapenak ezarrita ere, kontratistak akatsak zuzentzeko legezko beharra bete beharko du.

c) **Esleipen-irizpideak ez betetzeagatik.** Esleipen-baldintzak hausteagatik zehapenak ezarriko zaizkio kontratistari, honako kasu hauetan:

- Kontratu egikaritzen ari den bitartean edo obrak hartzerakoan, kontratistari egotz lekizkiokeen arrazoiengatik, eskaintza egitean harturiko konpromiso bat edo batzuk hausten baditu, bereziki kontratua egikaritzeko erabili beharreko lanekuari dagozkionak.
- Arau-haustek esleipen-irizpideetan eragina izan duela ondorioztatzeko, kontratistak bete ez duen esleipen-irizpideagatik lortutako puntuen % 25 deskontatuta, bere eskaintzak baloraziorik onena ez zukeela lortuko egiaztatu behar da.
- Arau orokor gisa, kontratuaren aurrekontuaren % 1ekoa izango da zehapenaren zenbatekoa, salbu eta, kontratazio-organoaren iritziz eta behar bezala argudiatuz, arau-haustea larria edo oso larria bada, kasu horietan % 5ekoa edo legeak gehienez aurreikusitako % 10ekoa ere izan litezke zehapenak, hurrenez hurren. Araua behin baino gehiagotan haustea ere kontuan har liteke larritasuna zehazteko.

d) **Berandutzagatik.** Kontratista, berari egotz lekizkiokeen arrazoiengatik, berandutzan eroriz gero, finkaturiko epe osoari zein epe partzialei dagokienez, Sektore Publikoaren Kontratu Legearen 196. artikulua agindutakoa beteko da ezarri beharreko zehapenen aldetik.

### 30.- Azpikontratazioa.

Kontratistak obra zati baten egikaritzaz azpikontratatu ahal izango du, % 40eko mugaraino.

Sektore Publikoaren Kontratu Legeak (210. eta 211. artikuluetan) eta eraikuntza sektoreko azpikontratazioa arautzen duen urriaren 18ko 32/2006 Legeak arautuko dute lanen azpikontratazioa.

Kontratistak Sektore Publikoaren Kontratu Legearen 210.2 artikuluan finkaturiko azpikontratazio-baldintzak edo azpikontrataziorako ezarritako gehienezko muga hautsitz gero, 210.3 artikuluan aurreikusitako zehapena ezarriko zaio, jarraian adieraziko den bezala:

- Kontratatari ordainketa osoa edo partziala egiteko eman beharreko diru-kopuruari kenduko zaio zehapenaren zenbatekoa, edo bestela osatutako bermeari, Sektore Publikoaren Kontratu Legearen 196.8 artikulua araberan.
- Arau orokor gisa, kontratuaren aurrekontuaren % 5ekoa izango da zehapenaren zenbatekoa, salbu eta, kontratazio-organoaren iritziz eta behar bezala argudiatuz, arau-haustea larria edo oso larria bada, kasu horietan % 10ekoa edo legeak gehienez aurreikusitako % 50ekoa ere izan litezke zehapenak, hurrenez hurren. Araua behin baino gehiagotan haustea ere kontuan har liteke larritasuna zehazteko.

### 31.- Kontratua betetzea.

Kontratua hartzeko araudia Sektore Publikoaren Kontratu Legearen 218. artikulua eta Administrazio Publikoen Kontratu Legearen Araudi Orokorraren 163. eta hurrengo artikuluek osatua da.

Kontratua hartzearekin batera, kontratistak honako betebeharrak bete ote dituen egiaztatuko da batez ere:

- 1.) Obren bukaerako garbiketa. Kontratatariak hasierako egoeran utzi behar ditu obrak eragindako eta okupatu ez dituen eremuak.
- 2.) Kontratua akatsik gabe betetzea.
- 3.) Esleipen-irizpideak betetzea.
- 4.) Egikaritze-baldintzak betetzea.

Kontratua egikaritzen ari den bitartean, enpresa esleipendunak, dagokion egiaztatze-aitorpenaren bidez, sortutako lanpostuen berri emango dio kontratazio-organoari, baita langile berrien alta eta baja guztien berri ere.

### 32.- Kontratua suntsiaraztea.

Kontratua suntsiarazteko araudia honako hau da: Sektore Publikoaren Kontratu Legearen 205etik 2008ra bitarteko artikuluek agindutakoa, oro har, eta obra-kontratu bereziki dagokienez, Lege horren 220tik 222ra bitarteko artikuluek, Administrazio Publikoen Kontratu Legearen Araudi Orokorraren 109tik 113ra bitarteko artikuluek eta 172. artikulua finkaturikoa.

Zehazki, 28. klausulan ezarritako egikaritze-baldintzaren lehen paragrafoan ezarritako baldintza haustea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat hartzen da, baldin eta arau-hauste hori oso larria bada, 29.1 klausularen azken paragrafoan ezarritakoaren arabera.

Nolanahi ere, kontratatari egotz lekizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratua hautsiz gero, Legearen 208.4 artikulua adindutakoa bete beharko da.

### 33.- Berme-epea.

Berme-epea urtebetekoa (1) izango da, kontratua hartzeko egunean kontatzen hasita.

Epe horretan zehar Administrazio Publikoen Kontratu Legearen Araudi Orokorraren 167. artikuluan agindutakoa aplikatuko da, kontratistaren betebeharrak dagokienez, baita, kontratatariak kontratua hautsiz gero, Administrazioak kontratistaren kontura obrari eusteko beharrezko lanak egikaritzeko duen ahalmenari dagokionez ere.

Berme-epetan zehar obrari eusteko sortzen diren gastu guztiak kontratistaren kontura joango dira, eta berak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Obrari ezinbesteko kasuetan izandako kalteak salbuetsita daude aurreko klausulatik, kalte horien ordaina Udalak hartuko baitu bere gain. Hala ere, erakunde horrek kontratistari konpontzeko lanak egin ditzan eskatzeko ahalmena izango du.

#### 34.- Likidazioa

Aurreko klausulan adierazitako berme-epaia igarota, kontratuaren likidazioari ekingo zaio, Administrazio Publikoaren Kontratu Legearen Araudi Orokorren 169. artikulua xedatutakoa bezala.

#### 35.- Jurisdikzioa.

Kontratua egikaritzen ari den bitartean sor litezkeen auziak kontratazio-organoak ebaziko ditu. Auzi horiek konpontzeko hartutako erabakiek administrazio-bideari amaiera emango diote, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean aurkaratu ahal izango dira.

**I. ERANSKINA**

Proposamen ekonomikoa eredu honi lotuko zaio:

.....jaun/an  
dreak,  
Helbidea: .....  
KP:.....,  
NAN: ....., telefonoa: ....., gaitasun juridiko eta jarduteko  
gaitasun osoaren jabe naizela, nire izenean (edo .....-  
ren izenean, egoitza soziala.....,  
KP:....., telefonoa: ....., NAN edo IFK (pertsone fisikoa edo juridikoa  
den): .....), OÑATIKO UDALAK "ERREKALDE AUZOKO  
IRISGARRITASUN OBRAK – 2. AREA" proiektuko obrak xede dituen kontratazioaren berri  
jakin dut, eta hau aitortzen dut:

- Obra horiek honako prezio honen truke betearazteko konpromisoa hartzen dudala:  
.....euro  
(gehi BEZ), prezio horretan kontzeptu guztiak barne hartuta daudela ulerturik, hau da, zergak,  
gastuak, tasak eta edozein esfera fiskaletako arielak, baita kontratistaren industria-etekina ere.
- Baldintza administratibo partikularren agiria eta kontratua arautuko duten gainerako  
dokumentuak ezagutzen ditudala, eta dokumentu horiek espresuki neure gain hartu eta osoki  
onartzen ditudala.
- Ordezkatzen dudana enpresak irekitzeko, instalakuntzarako eta funtzionamendurako  
indarrean dagoen arautegiak eskatutako betebeharrak betetzen dituela.

**Oñatin, 2011ko .....aren.....(e)an**

**Izpta.**

Oñati, 2011ko otsailaren 21ean.

**PLIEGO DE CONDICIONES ECONOMICO-ADMINISTRATIVAS QUE REGULA LA SUBASTA POR PROCEDIMIENTO ABIERTO DE LOS TRABAJOS DEL PROYECTO DE “OBRAS DE ACCESIBILIDAD EN EL BARRIO DE ERREKALDE. AREA 2”**

1. Objeto del contrato.

El contrato tendrá por objeto la ejecución de los siguientes trabajos: **“OBRAS DE ACCESIBILIDAD EN EL BARRIO DE ERREKALDE. AREA 2”**

CNAE: Sección F 45.21  
CPV: 4521000

2. Necesidades administrativas a satisfacer mediante el contrato.

Mediante la ejecución del contrato a que se refiere este pliego de cláusulas administrativas particulares se satisface la siguiente necesidad: lograr la movilidad urbana sostenible del barrio de Errekalde (peatonalización, bidegorri, calmado de tráfico, etc y la eficiencia energética de la iluminación pública).

3. Presupuesto base de licitación:

- a) El presupuesto base de licitación tiene un importe de: ochocientos veinte mil doscientos cincuenta y dos euros con veinticuatro céntimos (820.252,63 euros)
- b) De la cantidad anterior, corresponde en concepto de Impuesto sobre el Valor Añadido (18%): ciento veinticinco mil ciento veintitrés euros con veintiocho céntimos (125.123,28 euros)

4. Anualidades en que se distribuye.

El pago de las cantidades correspondientes al presupuesto del contrato se abonará en una sola anualidad correspondiente al año 2011.

5. Aplicación presupuestaria.

El proyecto se financia con cargo a los presupuestos municipales del año 2011. (Partida 1652).

6. Régimen jurídico del contrato y documentos que tienen carácter contractual.

Sin perjuicio de lo dispuesto con carácter general para los contratos de las Corporaciones Locales, el contrato se regirá por las siguientes normas:

- Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.
- Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.
- 
- Abuztuaren 5eko 34/2010 Legea, Kontratu-Legea zati batean aldatzen duena.
- Reglamento general de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, en lo que no se oponga a la Ley 30/2007.

Además del presente pliego tendrán carácter contractual los siguientes documentos:

- El pliego de prescripciones técnicas.
- Los planos.
- La memoria del proyecto en el contenido que se determina en el artículo 128 de Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
- El programa de trabajo aceptado por el órgano de contratación.
- Los cuadros de precios.
- El documento en que se formalice el contrato.

#### 7. Plazo de ejecución.

El plazo de ejecución del contrato será de 7 meses a contar desde la comprobación del Replanteo y concluir antes del día 30 de noviembre de 2011.

#### 8. Procedimiento de adjudicación.

El contrato se adjudicará aplicando el procedimiento abierto y trámite de urgencia a que se refieren los artículos 96 y 127 de la Ley a efectos de reducción de plazos.

#### 9. Importe máximo de los gastos de publicidad de licitación del contrato que debe abonar el adjudicatario.

El adjudicatario estará obligado a satisfacer los gastos de publicidad.

